



*Maiatzean egoera hobetzeko beste proposamenik jasotzen ez badute, greba deialdia sartuko dute.*

Hauxe da Garbaldiko langileek egindako oharra:

Pasa den abenduaren 5ean astero burutzen ari diren mobilizazioak martxan jarri genituen Garbaldi eta Foru Aldundiko garbitzaileen arteko hitzarmenaren negoziazioa desblokeatzeko borondatearekin.

Hitzarmen hau 2012. urtean hasi zen negoziatzen eta ordutik hainbatetan salatu behar izan dugu enpresaren immobilismoa, bere interes falta eta, oro har, mahaian erakusten duen fede txarra. Bere eskaintza erraz laburbildu daiteke: egunean 0.14€-tako soldata igoera lanaldi osoa dutenentzat. Partzialitateak gogor jotzen duen sektore honetan, kontuak atera!

Abenduaren 5etik geroztik, birritan batzartu gara Garbaldirekin, posturak gerturatzeko balio zezakeen eskaintza berri bat entzuteko itxaropenarekin.

**EZ DA HORRELAKORIK GERTATU.** Enpresak ez du proposamen berririk egin eta oraingo hauetan gainera ez du ezta aitzakiaren bat ipintzeko esfortzurik egin. Gainera, mahaian dauden ordezkariak eskubide sindikalak ukatzen dizkiete eta, are gehiago, aurrera eraman ditugun mobilizazioen inguruan komentario kritikoak egitera ausartu dira.

Euren jarrera, langileenganako errespetu falta izugarria erakutsi egiten du eta negoziazioa aurrera eramaten saiatzen ari garenontzat iraingarria bilakatzen hasi da.

Contratas de Limpieza en Centros de  
la Diputación Foral de Bizkaia

Bizkaiko Foru Aldundiko  
Garbikuntza Kontratak



**8 AÑOS DE CONGELACIÓN SALARIAL**

**DIPUTACIÓN Y GARBIALDI**

**¡RESPONSABLES!**

**NEGOZIAZIOA ORAIN**

**APIRILAK 18, 19, 20, 23, 24 DE ABRIL**



**11H - 12H**



**HACIENDA - OGASUNA**

**ELA - LAB - UGT - ESK - CCOO**

[Bilbo](#) [Leizor](#) [Erandio](#) [Muguruza](#) [Gorliz](#) [Ibañeta](#) [Kortatu](#) [Muguruza](#) [Badiola](#) [Asteasu](#) [Nabak](#)